Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea
Semana de Cine Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy Film Festival

# Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 32. Astea urriaren 29tik azaroaren 5era izango da

***Veneciafrenia** eta **Mona Lisa and the Blood Moon** pelikulek hasiera eta amaiera emango diote Asteari Antzoki Zaharrean*

Datorren ostiralean, urriaren 29an, **Veneciafrenia** (Álex de la Iglesia, 2021) filmak Antzoki Zaharrean emango dio hasiera Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 32. Asteari. **Mona Lisa and the Blood Moon** (Ana Lily Amirpour, 2021) filmak emango dio amaiera azaroaren 5ean Antzoki Zaharrean ere.

Bi data horien artean urteko fantasiazko zinemaren pelikula onenen hautaketa bat proiektatuko da, film luzeena eta laburrena, generoko hainbat klasiko tartean direla, eta Asteko programazioa osatzeko jarduera desberdinak ere izango dira.

Antzoki Zaharra eta Victoria Eugenia Antzokia izango dira egoitza nagusiak, eta haietan proiektatuko da Astearen sail ofiziala, **25 film luzez** eta **27 film laburrez** osatua (11 sail internazionalean, animaziozko 8 film labur eta 8 espainiar).

Aurtengo zikloa, Kulturaren Institutu Poloniarrarekin (Madril) batera antolatua, **Stanisław Lem** (1921-2006) zientzia-fikziozko idazle poloniarrari eskainia dago, jaio zenetik ehun urte bete direnean. Bere obran oinarrituta, 2 film luze eta 5 film laburren saio bat proiektatuko dira Tabakaleran.

Gainera, Antonio Merceroren **La cabina** pelikularen proiekzio berezi bat eskainiko da; aurtengo kartelaren inspirazio-iturri izan dena. Bestetik, urriaren 23an, **Bang Bang**ek saio bikoitz bat aurkeztuko du Antzoki Zaharrean, Astearekin lankidetzan, urteko bere programazioari hasiera emanez.

Aurten, Astearen zinema programazioaren osagarri izango dira haur zinemaren bi film –**Kranston Ikastetxea** Victoria Eugenian eta **Harri zopa (eta beste zenbait alderantzizko ipuin)** Kontadoresen–, ohiko kolaborazioa Kresala zineklubarekin (**El monstruo de St. Pauli**) eta **Amari** dokumentalaren proiekzio berezia San Telmon.

Ohi denez, beste jarduera batzuk ere gehitu dira programan: edizio honetan beren jardunarekin jarraitzen du **Azaro mamua** *online* hedapen kanal partekatuak, 2020an sortuak **Fancine** (Málaga) eta **TerrorMolins** (Molins de Rei) zinemaldiekin lankidetzan, eta aurten kide berri bat duenak, **Isla Calavera** (Tenerife) zinemaldia; Mikel Pagadiren **Phantasmikel** ikuskizuna; **TraShe – Bad Girls go to Hell** mahai-ingurua, eta **Fanzineen Gerra** klasikoaren 6. edizioa.

Bestetik, 4 erakusketak –**Sanjulián: Fantasiazko artearen maisua** (Okendo KE), **asisKo: Sugarren mende: ehizakiak, sorgin?** (Liburutegi Nagusia), **Simonides** (Kutxa Kultur Plaza) eta **Batman: El mundo (Paco Roca)** (FNAC)– osatzen dute 32. Astearen programa.

**Ostiralean, urriaren 22an, 11:30ean** hasiko da abonuen salmenta, oraingo honetan *online* soilik (**www.donostiakultura/entradas**) egun bereko **20:00ak** arte. **Asteartean, urriaren 26an** ordu berean eta soilik *online* ere jarriko dira salgai sarrera solteak, eta urriaren 27tik aurrera erosi ahal izango dira Antzoki Zaharrean eta Victoria Eugenia Antzokian ere.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

## FILM LUZEEN SAIL OFIZIALA

*INAUGURAZIOA*
- **Veneciafrenia** (2021). Álex de la Iglesia. Espainia

*BUKAERA / CLAUSURA*
- **Mona Lisa and the Blood Moon** (2021). Ana Lily Amirpour. AEB **(LK)**

- **Apps** (2021). Lucio A. Rojas, José Miguel Zúñiga, Sandra Arriagada, Camilo León, Samot Márquez. Txile-Argentina
- **Belle** (*Ryu to sobakasu no hime*, 2021). Mamoru Hosoda. Japonia
- **Caveat** (2020). Damian Mc Carthy. Erresuma Batua
- **Censor** (2021). Prano Bailey-Bond. Erresuma Batua
- **Cryptozoo** (2021). Dash Shaw. AEB
- **Dead & Beautiful** (2021). David Verbeek. Herbehereak-Taiwan
- **The Deep House** (2021). Alexandre Bustillo, Julien Maury. Frantzia
- **Demonic** (2021). Neill Blomkamp. Canada
- **Historias para no dormir – El asfalto** (2021). Paula Ortiz. Espainia **(LK)**
- **Historias para no dormir – Freddy** (2021). Paco Plaza. Espainia **(LK)**
- **In the Earth** (2021). Ben Wheatley. Erresuma Batua
- **Más allá de los dos minutos infinitos** (*Droste no hatede bokura*, 2020). Junta Yamaguchi. Japonia
- **The Medium** (2021). Banjong Pisanthanakun. Thailandia-Hego Korea
- **Mi adorado monster** (2021). Víctor Matellano. Espainia **(LK)**
- **Offseason** (2021). Mickey Keating. AEB
- **La pasajera** (2021). Raúl Cerezo, Fernando Fernández Gómez. Espainia
- **Prisoners of the Ghostland** (2021). Sion Sono. AEB
- **The Sadness** (2021). Rob Jabbaz. Taiwan
- **The Seed** (2021). Sam Walker. Erresuma Batua
- **Son** (2021). Ivan Kavanagh. Irlanda-Erresuma Batua-AEB
- **Última noche en el Soho** (*Last Night in Soho*, 2021). Edgar Wright. Erresuma Batua
- **What Lies Below** (2020). Braden R. Duemmler. AEB
- **Yellow Dragon's Village** (2021). Hugo Sakamoto. Japonia

**(LK)** lehiaketatik kanpo

## BESTE PROIEKZIOAK

*ANTZOKI ZAHARRA*
**La cabina** (1972). Antonio Mercero. Espainia

*SAN TELMO MUSEOA*
**Amari** (2021). Iosu del Moral. Espainia

*KRESALA ZINEKLUBA*
**El monstruo de St. Pauli** (*Der goldene Handschuh*, 2019). Fatih Akin. Alemania-Frantzia

*HAURRENTZAKO ZINEMA*

*VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA*

- **Kranston Ikastetxea: Munstroen eskola** (2019). Leopoldo Aguilar. Mexiko-Erresuma Batua-AEB-Kanada

*KONTADORES*

- **Harri zopa (eta beste zenbait alderantzizko ipuin)** (2017). Frits Standaert, Samuel Guénolé, Clémentine Robach, Pascale Hecque. Belgika-Frantzia

*OIARTZUNGO UDALA*

- **ILARGI GUZTIAK** (2020). Igor Legarreta. Espainia
- **2021eko Astearen film laburren maratoia**

## FILM LABURREN NAZIOARTEKO SAILA

- **Dora** (2020). Joanne Delachair. Frantzia
- **Incarnation** (2020). Noboru Suzuki. Japonia
- **Inherent** (2021). Nicolai G. H. Johansen. Danimarka
- **Les Monstres** (2021). Frank Tremblay. Kanada (Québec)
- **Night of the Living Dicks** (2021). Ilja Rautsi. Finlandia-Danimarka
- **Part Forever** (2021). Alan Chung-An Ou. Taiwan
- **Snowdevil** (2021). Patricio Valladares. Txile
- **S. O. S.** (2021). Sarah Hafner. Frantzia
- **The Thing That Ate the Birds** (2021). Sophie Mair, Dan Gitsham. Erresuma Batua
- **They're Here** (2021). Sid Zanforlin. Kanada (Québec)
- **Tranvía** (2021). Carlos Baena. Espainia-AEB

*Epaimahai Ofiziala*
**Toni Costa** (Sony Pictures España)
**Maider Oleaga** (zuzendaria)
**Sonia Pacios** (ekoizlea)

## ANIMAZIO FILM LABURREN SAILA

- **Cyan Eyed** (2021). Ryan Grobins. Kanada-Australia
- **Los días que (nunca) fueron** (2021). Kevin Iglesias, Pedro Rivero. Espainia
- **The Expected** (2020). Carolina Sandvik. Suedia
- **Little Miss Fate** (2020). Joder von Rotz. Suitza
- **Mum's Sweater** (2020). Mauriziana Gualdrini. Yi-chen Hsiao, James Mann, Ugo Offner, Anand K. Varma. Frantzia
- **Ronde de nuit** (2021). Julien Regnard. Frantzia-Belgika
- **Swallow the Universe** (2021). Nieto. Frantzia
- **Them** (2021). Sunitha Sangaré. Suitza

## ESPAINIAKO FILM LABURREN SAILA

- **Au pair** (2021). David Pérez Sañudo
- **Cércol a Catalunya** (2021). Fran J. S. C.
- **Deia** (2021). Khuruts Begoña **(LK) (FC)**
- **La increíble vacuna del Dr. Dickinson** (2020). Álex Rey.
- **La inquilina** (2021). Lucas Paulino, Ángel Torres
- **La luz** (2021). Iago de Soto
- **O que queda de nós** (2021). Miguel Gómez Abad
- **Wayback** (2020). Carlos Salgado

zikloa

## Stanisław Lem

- **El hospital de la transfiguración** (*Szpital przemienienia*, 1978). Edward Żebrowski. Polonia
- **El test del piloto Pirx** (*Test pilota Pirxa*, 1978). Marek Piestrak. Polonia-SESB

**film laburrak**

- **Un viaje al cosmos** (*Wycieczka w kosmos*, 1961). Krzysztof Dębowski. Polonia
- **La trampa / Un planeta desierto** (*Pułapka / Bezludna planeta*, 1962). Krzysztof Dębowski. Polonia
- **Milhojas** (*Przekładaniec*, 1968). Andrzej Wajda. Polonia
- **La máquina de Trurl** (*Maszyna Trurla*, 1975). Jerzy Zitzman. Polonia
- **Los consejeros del rey Hidropsio** (*Doradcy króla Hydropsa*, 2016). Polonia

## ERAKUSKETAK

**Sanjulián – Fantasiazko artearen maisua**
CC Okendo KE
irailak 27 – azaroak 13

Euskadi Fantastikoa 17
**asisKo – Sugarren mende: ehizakiak, sorgin?**

- **Donostia**
  Udal Liburutegi Nagusia
  urriaK 29 – azaroak 20

- **Irun**
  CBA – Carlos Blanco Aguinaga Kultur Gunea
  azaroak 25 – abenduak 10

**Simonides**
Kutxa Kultur Plaza (Tabakalera – 4. solairua)
urriak 26 – abenduak 12

**Batman: El mundo**
**Paco Rocaren originalak**
FNAC
urriak 25 – azaroak 30

## BESTE EKITALDIAK

**Azaro mamua**
www.noviembrefantasma.es

Bueltan da **Azaro mamua** ekimena, *online* kanal bat fantasiazko generoarekin lotutako eduki estra esklusiboak dohainik ikusteko. Lau gara dagoeneko parte hartzen dugun zinemaldi estatalak: **Terrormolins** (Molins de Rei), **Fancine** (Málaga), **Donostiako Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** eta bigarren urte honetan **Isla Calavera – Festival de Cine Fantástico de Canarias** (Tenerife) gehitu da. Azaroaren izaera fantastikoa sendotzea da proposamen honen helburua, data hauetan beren edizio presentzialak aurrera eramaten dituzten zinemaldien artean indarrak batuta, eta fantasiaren eta beldurraren generoak pizten duen pasioa Espainia osoan elikatuta.

**Phantasmikel – Argitu ditzagun misterioak**
**Mikel Pagadi**
Klub Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)
azaroak 3

Aurten, Mikel Pagadik bere *show* berrian, gure inguruan ditugun kasu paranormalak aztertu eta misterio desberdinak argitzen saiatuko da: alienijenak Euskal Herrian, *poltergeist* kasu ezezagunak, inguruan gertatutako gauza ez ohikoak… Agian Mikel bera da guzti hori dena baino paranormalagoa.

**TraShe: Bad Girls go to Hell**
Klub Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)
azaroak 1

**Mahai-inguru** honetan, *underground*en emakume sortzaileen zeregina aldarrikatu nahi dugu, haien artean: Doris Wishman, Amy Holden Jones, Stephanie Rothman, Barbara Peeters eta Roberta Findlay. Sormenaren askatasunaz eta *trash*a bere forma, kolore eta usain orotan egiteko eskubideaz hitz egin nahi dugu. Azken batean, debate bat egin nahi dugu emakume haiek zinemari ekarri zioten ikuspegiaz eta oraingo emakume sortzaileak odolaren errregina-makila jasotzen ari diren moduaz... era horretan infernuetako humanoideen hordak zuzentzeko.

**6. Fanzineen Gerra**
urriak 29 – azaroak 5

**Fanzineen Gerra** legendarioaren seigarren edizioa. Bertan, hainbat taldek zenbaki bereziak ateratzen dituzte Beldurrezko Asteari eskainiak eta lehian aritzen dira Antzoki Zaharreko publikoaren babesa lortzeko. **Medialab Tabakalera**ko **Autoedizio txokoa**rekin eta **FNAC**ekin elkarlanean.

## ARGITALPENAK

**Líbranos del mal**
**Un estudio cultural del cine de posesiones demoníacas y exorcismos**
Antonio José Navarro
Editorial Hermenaute

Deabrutze eta exorzismoetako zinema, zeharo popularra den aldetik, entretenimendua da ezeren gainetik. Ez da, ordea, entretenimendu hutsal eta transzendentziarik gabeko bat, narratiba osatu bat baizik; ikonografia bat da, era askotan irudikatzen duena deabru pertsonalak eta kolektiboak neutralizatzeko dugun premia bizia. **Líbranos del mal. Un estudio cultural del cine de posesiones demoníacas y exorcismos** saiakerak Gaizkiarekin dugun harremanaren inguruko dinamika mitologikoak, kulturalak, sozialak, ideologikoak, estetikoak, baita psikologikoak ere, aztertzen ditu, sarritan gutxietsitako beldurrezko zinemaren azpigenero honen bitartez aditzera emanak.

**2000maniacos**
Konfina zaitez **2000maniacos** fanzinearen zenbaki hidroponiko, amorratu eta berezi honekin. Esklusiba mundiala, Donostiako Beldurrezko Asterako argitaratua!